

F. Barrenengoa jaunak Aiara eskualdean euskara noiztik nora atzeratuaz etorri den, eta tokiz toki aurkitu dituen euskalkizko berezitasunak adierazi zituen. Eskualde horretako toponimia azterketa lana ere aipatu zuen.

P. Sancristoval Murua jaunak, Arabako Foru Kultur Batzarrak fakzimilez argitara berri duen Ulibarriren "*Gutunliburua*"ren aurkezpena egiten du.

Ondorean, Euskaltzaindiko laguntzaile berri hauei diploma-agiriak banatzen zaizkie: J. M. Aranalde, X. Aranburu, M. Atxaga, J. Garmendia Larrañaga, J. M. Iriondo, H. Knörr, I. Laspiur, J. A. Letamendia, X. Mendiguren, J. A. Retolaza, J. M. Torrealday, P. Zabaleta eta J. J. Zearreta-ri.

Bukatzeko, Gobernu Zibileko Barquero idazkari jaunak, F. Ugarte jaunaren ezin etorria adiaraziaz, bere izenean agurtzen ditu batzarkide guztiak.

—oOo—

Ondorean, elizaurreko plazan J. P. Ulibarriren omenezko oroitarria agertzen dute herriko alkate eta euskaltzainburuaren artean.

Diputazioko dantzariak Arabako zenbait dantza egin dituzte.

Anaitasunezko bazkari ondorean, herri jaialdia frontoian. Arabako dantzariak, Okondoko Musika Akademiakoak, Gorka eta Jon Knörr, eta Embeitatar bertsolariak parte harturik.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN

1975-IX-28

### BILTZAR IREKIA AIHERRAN

Aiherran (Baxe-Nabarre), Hermezaren ondotik, herriko trinketean, 1975eko irailaren 28an, biltzar irekian bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar, J. L. Davant, L. Dassan-

ce, X. Diharce, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre euskaltzain jaunak; L. Akesolo, J. L. Alvarez, J. Allières, P. Andiazabal, M. Atxaga, J. Berrojalbiz, N. Etxaniz, P. Etchehandi, K. Etxenagusia, M. Goihenetxe, J. Hiriart-Urruty, M. Itçaina, R. Kanblong, X. Kintana, J. L. Lizundia, J. Zaitegi, M. Zarate eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela. A. Arrue, A. Irigaray, J. M. Lojendio eta A. Zavalak ezin etorria adierazi dute.

Horiez gainera herriko Challet Jaun Mera mahai-buruko dela, trinketea bete herritar, eguneko deiari erantzunez bertako erretore den Emile Larre jaunaren omenez.

Lehenbizi Aiherrako Challet Jaun Meraren agurrezko hitzak, ongietorria emanaz eta Emile Larre jauna apez eta herritar bezala goratuz, eta Euskaltzaindiaren sartzearen zorianak eskainiaz. Baita ere Aiherrako arbasoez eta bertako nafar jatorriz mintzo da, izatearen nortusunez euskera gelditzen delarik Aiherran. Bukatzean, minutu bateko isilaldia eskatu du atzoko heriotzen izenean.

Ondorean Villasante euskaltzainburuaren agurrezko hitzak, herriko jaun Merari, Aiherrako herriari eta omenaldi eta biltzar honen antolatzaile guzietan esker ona agertu ondorean Euskaltzaindia zer den eta zertarako, adierazi du.

Emile Larre jaun euskaltzain berria X. Diharce eta A. Irigoyen jaunen laguntzaz, ohi den bezala, sartu da trinketean jendeak txalotzen duelarik.

Larre jauna lotu da sarrera hitzaldiari, "Aiherrar euskal idazle batzuen goresmenez". Haseran P. Lafon euskaltzaina zenaren goresmena egiten du, haren aulkiaren hutsunea betetzera datorrenez. Lafon izan zitaikkeen euskaltzain bere liburuekin, bere iker lanekin; ni berriz, Euskaltzaindirako naiz zuekilan, Aiherratarrak. Zuek bait zirezte egun guztiz nik irakurtzen dudan liburu ederra —zion Larre jaunak bere hitzaldian. Ondorean zenbait idazle aiherrar aipatu zituen, bertako euskararen alde fruitu ederrik eman zutenek, Larregi, Haristoy, Ximon Etiene, Durruty, J. Heguy eta abar.

Jean Haritschelhar jaun buruordezkoak eman zion ongietorria eta erantzunezko hitzaldia. Lehenik Lafon zenaren iker lanen berri eman zuen eta azkenik Emile Larre jaunaren merezimenduak aipatu. Aiherrako herria euskaldun gorde duen euskaltzale eta euskal izkribazaile bezala goretsi du,

“Herria” astekariaren zuzendari bezala egiten ari den lan bikaina ere agerraraziz. Zure merezimenduak ikusirik pentsatu dute euskaltzainek euskararen bultzatzeko eta zaintzeko gai zirela, aitortu du Haritschelhar jaunak.

Ondorean, Emile Larre jaunak, euskaltzain agiria hartu du Luis Villasante Euskaltzainburuaren eskutik. Eta, Piarres Lafitte jaunak, “Herria” astekariko lagunen izenean eskualdun makila emanen dio.

Bukatzeko, Ifar Euskal Herriko euskaltzain laguntzaile berriei agiriak eman zaizkie: Gexan Alfaro “Lantziri” (bere ezin etorria agertu du), Manex Goihenetxe eta Ramuntxo Kanblong.

Batzarra bukatzean anaiarteko bazkariak jarraitu du trinkete berean.

*Euskaltzainburua*  
*LUIS VILLASANTE*

*Idazkaria*  
*JUAN SAN MARTIN*

*1975-X-31*

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1975eko urriaren 31an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, A. Irigoyen, P. Lafitte euskaltzain jaunak; P. Altuna, J. M. Aranalde, M. Atxaga, J. Fdz. Setien, J. Garmendia Larrañaga, J. Goikoetxea Maiza, J. A. Irigaray, F. Ixurko, E. Knörr, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, J. Zaitegi, A. Zatarain, J. J. Zearreta eta J. M. Zumalabe laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Dassance, Davant, Diharce, Irigaray, Larre, Larzabal, Lojendio, Satrustegi, Zavala eta Oregi jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Uztaileko, abuztuko eta iraileko batzar agiriak onhartu dira.

Ixurko jaunari laguntzaile agiria eman zaio.